

# Oraindik inor ez zegoenean

Yolanda Arrieta  
IRRIMARRA ilustrazioa



# Oraindik inor ez zegoenean

**i r u d i a k :**

I R R I M A R R A ilustrazioa

**i p u i n a :**

Y o l a n d a Arrieta

**i t u r r i a :**

J o s u Zabaleta

Z e n b a i t ipuin herrikoi



**BOOKTEGI**

Euskal literatura denon eskura

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)


Oraindik inor ez zegoenean, Lurra piztia baten antzekoa zen. Inguruak ikusteko gai izateaz gain, gauzak usaintzeko ahalmen izugarria zeukan.



Esan daiteke mota askotako sudurrez osatuta zegoela. Eta sudur-mota bakoitza ekintza desberdinetarako erabiltzen zuen.

Esate baterako, sua usaintzen zuenean euriari deitzen zion. Eta euriak sutea itzaltzen zuen.

Hezetasuna sumatzen zuenean, hego haizeari hots egiten zion. Eta hego haizeak hodeiak uxatzen zituen eguzkiak bazterrak sikatzeko.



Dena dela, baziren egunak, lore  
jaioberriei adi, arnasa sakon hartzekoak,  
eta orduan Lurra geldi-geldi geratzen zen  
udaberria usaintzen.

—Uuuuum! Bai ederra!

Izanak izan, Lurrarentzat ez zen batere  
erraza piztia izatea.



Udazkenean hostoz betetzen zitzaizkion sudur guztiak eta, atxis-atxis-atxis!, doministiku batean igarotzen zuen eguna, mukiak dariola. Ai, ama!

Baina, konturatu orduko, mukiak izozten zitzaizkion neguan. Imajinatzen? Bi horma luze, sudurretik zintzilik, flin eta flin!




Udaberrian, berriz, muki izoztuak berriro urtzen ziren, eta alde guztietan itsasten ziren, berde-berde, likatsu eta itsaskor. Zer nazka!

Azkenik, uda heltzen zenean, sudur-zuloak erabat lehortzen zitzaizkion Lurrari, eta ezin izaten zuen ezer usaindu. Puf!




Egia esan, Lurrarentzat ez zen batere erraza piztien bizimodua eramatea. Eta, horrexegatik, egun batean, esan zuen:

—Nahiko piztia eta abere dago, jada, nigan. Hemendik aurrera, guztion bizilekua izango naiz, eta kitto!







Eguzkiak eta Ilargiak entzun zioten goitik.

—Planeta bat izango zara, orduan —esan zion Eguzkiak.

—Planeta Urdina —zehaztu zuen Ilargiak.

—Lur Planeta Urdina —laburbildu zuen piztia ohiak—. Itsasoa jaio zenetik, hor goitik urdin-urdin ikusten nauzuelako, ezta?

Eguzkiak eta Ilargiak baietz egin zioten buruaz, eta Lur Planeta Urdina pantxo- pantxo geratu zen bere baitakoekin bizitzen, patxada ederrean.



Lurrak inguruak behatzen pasatzen zuen eguna, eta goiz batean ideia bat bururatu zitzaion:

—Nire baitan bizi ziren gauza guztiak zerrendatuko ditut zenbat garen jakiteko. Makilatxo bat hartu, eta hondarrean idatzi zituen guztien izenak: armiarma, dortoka, intxaurrondo, muinoa, harkaitza, mendia, erreka, itsasoa, koba, lehoia, behia, oiloa, txakurra, katua...

Milioigarren espeziera iritsi zenean ohartu zen zer bait falta zela. Hobeto esan, nor bait.



—Atela-matela-tela! —oihukatu zuen Lurrak lau haizetara.

Eta, tik-tak, bi oineko lagun bi agertu ziren, inork ez daki nondik, inork ez daki nola.

Orduan, bat-batean, lehoiak orro egin zuen, katuak miau eta txakurrak zaunk.

Bi oineko lagunek bi oineko txiki asko-asko izan zituzten, eta Lurra pantxo- pantxo geratu zen guztiei begira.





# BOOKTEGI

Euskal literatura denon eskura

[booktegi.eus](http://booktegi.eus)